



GIPUZKOA




ETA EUROPAR BATASUNA

21. HILABETEKO IRUZKINA

> 2010eko Azaroa



GIPUZKOA



EUROPAKO ETA GIPUZKOAKO EKONOMIAK 2011 ETA 2012AN

- > 2010ean % 1,8ko hazkundera aurreikusten du Europako Batzordeak, aurretik egindako aurreikuspenak handituz

Europako Batzordeak udazkenean egindako eta azaroaren 29an argitaratutako aurreikuspenen arabera, Batasuneko BPGa % 1,8 igoko da 2010ean, % 1,7 2011n eta % 2 2012an.

Urte honi dagokionez, orain arte igarotako hilabeteetako ekonomiaren bilakaerak urte honetarako hazkundera aurreikuspenak handitzea ekarri du (udaberriean egindako aurreikuspenei dagokien % 1 baino gehiago).

Esportazioen dinamismoak susperraldiaren hasiera bultzatu du urte honetan, ekonomia-krisien garaietako irteera tradizionala, eta inbertsioa ekipamendu-ondasunetara progresiboki aldatzen ari dela antzeman daitekeen arren, oraindik hasiberria da. Are gehiago munduko ekonomiaren hazkunderaren abiadura zertxobait moteltzea aurreikusten dela kontuan hartuta.


Testuinguru honetan, urte honen amaieran eta 2011 urtean hazkunde ekonomikoa moteltzea aurreikusten du Batzordeak. Halaber, 2012an berraktibatu egingo litzateke, industria-inbertsioak eta kontsumo pribatuak (enpleguaren neurrizko hobekuntzaren ondorioz) bultzatuta.

Europar Batasunerako aurreikuspen ekonomikoak

(urteko aldakuntza-tasak)

				Aurreikuspenak		
	2007	2008	2009	2010	2011	2012
BPGa	3,0	0,5	-4,2	1,8	1,7	2,0
Kontsumo pribatua	2,1	0,7	-1,7	0,7	1,2	1,6
Kontsumo publikoa	1,9	2,3	2,0	1,2	-0,2	0,0
Inbertsioa	5,8	-0,8	-12,1	-0,6	2,8	4,2
Enplegua	1,7	0,9	-1,9	-0,6	0,4	0,7
Langabezia-tasa	7,2	7,0	8,9	9,6	9,5	9,1
Inflazioa	2,4	3,7	1,0	2,0	2,1	1,8
Defizit publikoa (% BPGa)	-0,9	-2,3	-6,8	-6,8	-5,1	-4,2
Zor publikoa (% BPGa)	58,8	61,8	74,0	79,1	81,8	83,3
BPGaren aldakuntzari egindako ekarpena						
Barne-eskaria	2,8	0,7	-3,1	0,6	1,2	1,7
Izakinen aldakuntza	0,2	-0,3	-1,0	0,7	0,1	0,0
Kanpoko saldoa	-0,1	0,1	-0,1	0,6	0,4	0,3

Iturria: Europako Batzordea



> Europar Batasuna, munduan dinamismo ekonomiko txikiena duen gunea

Munduko ekonomia aurten % 4,5, eta 2011 eta 2012 urteetan, hurrenez hurren, % 3,9 eta % 4 haziko dela aurreikusten da.

Munduko gunea handien artean, Asiaren dinamismoa nabarmentzen da. Aurten, % 10,5eko hazkundea izango du (Japonia barne hartu gabe) eta hurrengo bi urteetan tasak zertxobait baxuagoak izango dira.

Halaber, Latinoamerikako ekonomiek (Brasil bereziki) hazkunde-tasa altuak adierazten dituzte, nahiz eta Asiako ekonomiek baino geldotze handiagoa izan.


Munduko ekonomia-gune desberdinek ekonomiaren susperraldia erakusten duten ezaugarriak dituzte, nahiz eta moteltze-prozesu arina izan. Krisitik ateratzeko prozesuan, erkidegoko ekonomiak dira intentsitate txikiena dutenak.

Nazioarteko aurreikuspen ekonomikoak

(urteko aldakuntza-tasa erreala)

	(a)	2007	2008	2009	Aurreikuspenak		
					2010	2011	2012
Estatu Batuak	20,7	1,9	0,0	-2,7	2,7	2,1	2,5
Japonia	6,0	2,4	-1,2	-5,2	3,5	1,3	1,7
Asia (Japonia salbu)	26,0	9,8	6,5	5,8	8,5	7,6	7,5
▪ Txina	12,7	13,0	9,0	8,7	10,5	9,2	8,9
▪ India	5,1	9,2	6,7	7,4	8,5	8,3	7,8
Latinoamerika	8,6	5,8	4,2	-1,9	5,6	4,0	4,2
▪ Brasil	2,9	6,1	5,1	-0,2	7,4	4,8	5,1
Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika	5,0	5,6	4,8	2,1	3,8	4,0	4,0
CEI	4,3	7,8	4,9	-7,0	3,7	4,1	4,2
▪ Errusia	3,1	8,1	5,6	-7,9	3,5	3,8	4,0
Saharaz hegoaldeko Afrika	2,5	6,9	5,6	2,1	5,0	5,5	6,0
Herrialde hautagaiak (EBari begira)	1,4	4,8	0,8	-4,8	6,3	5,1	4,3
Mundua (EB barne)	100,0	5,2	2,8	-0,7	4,5	3,9	4,0
Munduko inportazioak	--	6,6	3,0	-13,8	13,8	7,4	7,3
EBtik kanpoko esportazioak	--	8,9	3,6	-11,0	13,7	7,9	7,3

(a): BPGean duen garrantzia erlatiboa (prezio konstanteak, MPB) 2009an.




> Polonia, Eslovakia, Suedia eta Alemania dira Europar Batasunean hazkunde-tasa altuenak dituzten herrialdeak


2010-2012 hirurtekoan, Europar Batasuneko estatu kideek desberdintasun nabarmenak izango dituzte euren artean, ekonomiaren hazkundearen aurreikuspenei dagokionez.

Lau herrialdek hirurtekoaren hazkundearen batez bestekoa ia-ia bikoiztu egiten dute (% 1,8). Herrialde horiek Polonia (% 3,9), Eslovakia (% 3,7), Suedia (% 3,5) eta Alemania (%3,4) dira.

Eta beste hiru herrialderentzat aurreikusitako hazkundera baxuena da, % 1etik beherakoa: Grezia (% -2,0), Espainia (% 0,7) eta Irlanda (% 0,9).

2010-2012 Hazkunde handiena eta txikiena duten herrialdeak






Hazkunde ekonomikoa (BPGaren urteko aldakuntza-tasa prezio konstanteetan)

	2010	2011	2012
	(balioespena)	(aurreikuspena)	(egoera)
EB-27	1,8	1,7	2,0
Belgika	2,0	1,8	2,0
Bulgaria	-0,1	2,6	3,8
Txekiar Errepublika	2,4	2,3	3,1
Danimarka	2,3	1,9	1,8
Alemania	3,7	2,2	2,0
Estonia	2,4	4,4	3,5
Irlanda	-0,2	0,9	1,9
Grezia	-4,2	-3,0	1,1
Espainia	-0,2	0,7	1,7
Frantzia	1,6	1,6	1,8
Italia	1,1	1,1	1,4
Zipre	0,5	1,5	2,2
Letonia	-0,4	3,3	4,0
Lituania	0,4	2,8	3,2
Luxenburgo	3,2	2,8	3,2
Hungaria	1,1	2,8	3,2
Malta	3,1	2,0	2,2
Holanda	1,7	1,5	1,7
Austria	2,0	1,7	2,1
Polonia	3,5	3,9	4,2
Portugal	1,3	-1,0	0,8
Errumania	-1,9	1,5	3,8
Eslovenia	1,1	1,9	2,6
Eslovakia	4,1	3,0	3,9
Finlandia	2,9	2,9	2,3
Suedia	4,8	3,3	2,3
Erresuma Batua	1,8	2,2	2,5

Iturria: Europako Batzordea (2010eko azaroak 29).



> Europar Batasuneko enpleguaren susperraldi murrizta 2011 eta 2012an

2010erako balioespeneak 2010ean enplegua murriztuko dela (% -0,6) adierazten dute, eta 2009 urteari dagokionez beherakada moteldu egingo da. 2011 eta 2012 urteetatik aurrera, enpleguaren sorkuntzan tasa positiboak aurreikusten dira, % 0,4 eta % 0,7ko aldakuntzekin, hurrenez hurren.

Hala ere, Batasuneko hogeita zazpi herrialdeetako zortzitan aurten enpleguaren bilakaera positiboa izatea aurreikusten da; Zipre, Luxenburgo eta Suedia nabarmentzen dira. Eta enplegu asko galduko dituzte Baltikoko estatuek eta Greziak.

Enplegua (urteko aldakuntza-tasa)

	2010	2011	2012
	(balioespena)	(aurreikuspena)	(egoera)
EB-27	-0,6	0,4	0,7
Belgika	0,4	0,3	0,6
Bulgaria	-5,2	0,7	1,1
Txekiar Errepublika	-0,5	0,2	0,3
Danimarka	-1,4	0,3	0,3
Alemania	0,3	0,7	0,4
Estonia	-4,7	2,9	1,9
Irlanda	-4	-0,8	0,6
Grezia	-2,8	-2,6	0,1
Espainia	-2,3	-0,3	1,1
Frantzia	0	0,5	0,7
Italia	-1,4	0,4	0,9
Zipre	-0,9	0,2	0,8
Letonia	-5,6	0,5	0,6
Lituania	-5,6	1,1	2,1
Luxenburgo	1,7	2	2,1
Hungaria	-0,8	0,1	0,8
Malta	1,1	1,2	1,4
Holanda	-1,1	0,2	0,3
Austria	0,7	0,7	0,8
Polonia	0,7	1,3	1,4
Portugal	-0,9	-0,7	-0,3
Errumania	-0,8	0,1	0,6
Eslovenia	-2,3	-0,2	0,6
Eslovakia	-2,8	0,3	0,8
Finlandia	-0,1	0,9	0,9
Suedia	1	0,9	0,8
Erresuma Batua	-0,1	0,4	0,5

Iturria: Europako Batzordea (2010eko azaroak 29)



> Gipuzkoa: enpresa-salmentek susperraldiaren hasiera islatzen dute

Ogasun eta Finantza departamentuaren "Enpresen egoera" hileroko txostenaren urriko aleak jasotzen duenez, aurtien ekonomiaren suspertzeko prozesua abiatu da, 2009an atzeraldia izan ostean.

Salmentak pixkanaka hazi egin dira, nahiz eta azken hilabeteotan berriz ere geldotu, eta hori esportazioei esker gertatu da, krisitik irteteko eredu tradizionalarekin bat eginez. Aitzitik, barne-salmentek tasa negatiboak izaten jarraitzen dute.

Gipuzkoako enpresen salmentak (urteko aldakuntza-tasa)

Urtea	Guztizko salmentak	Barne-salmentak	Esportazioak
EB-27	-0,6	0,4	0,7
2006	7,2	6,8	8,3
2007	6,3	5,3	9,2
2008	0,6	-0,8	5,0
2009	-20,0	-19,7	-20,8
2010*	3,3	-2,4	21,4

* Urtarrila-urria aldia

Iturria: Ogasun eta Finantza departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia


Azken hamarkadaz geroztik, Gipuzkoako ekonomiaren hazkunde-tasak Europar Batasunekoak baino handiagoak izan dira, orokorrean ikus daitekeen moduan.

BPGa eta enplegua Gipuzkoan eta Europar Batasunean (aldakuntza-tasak)

Aldia	Gipuzkoa		EB-27	
	BPGa	Enplegua	BPGa	Enplegua
1992-1996	2,4	-0,4	1,3	-0,4
1997-2001	4,9	3,7	2,9	1,0
2002-2006	3,0	2,3	2,1	0,6
2006	4,9	2,5	3,2	1,5
2007	4,3	2,4	3,0	1,7
2008	0,6	0,4	0,5	0,9
2009	-3,7	-3,2	-4,2	-1,9
2010	0,2*	-0,8	1,8	-0,6
2011	1,4*	0,4	1,7	0,4

* Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegorako egindako aurreikuspenak

Iturria: Europako Batzordea, Eustat eta Eusko Jaurlaritza



Hala ere, urte honi eta 2011 urteari begira Eusko Jaurlaritzak Autonomia Erkidego osorako egindako aurreikuspenek (azarokoak) adierazten dutenez, biurteko honetan hazkundea Europar Batasuneko baina geldoagoa izango da.

2010ean % 0,2ko hazkundea balioesten da, inbertsioaren jaitsierak eta kontsumoaren geldotasunak oztopatzen baitute. Bestalde, 2011 urterako % 1,4ko hazkundea aurreikusten da; etxeetako kontsumoa berreskuratzean oinarritzen da, kanpo-eskariaren ekarpen positiboak geldotzen den bitartean.

Euskadirako hiruhileko aurreikuspenak

	2010				2010	2011		2011
	I	II	III	IV		I	II	
BPGa (merkatu-prezioetan)	-0,8	0,5	0,5	0,7	0,2	1,1	1,2	1,4
Bukaerako barne-kontsumoa	-0,3	1,4	0,5	0,6	0,5	0,8	0,9	1,0
Etxeetako kontsumoaren gastua	-0,6	1,4	0,8	0,9	0,6	1,2	1,2	1,3
Administrazio publikoen kontsumoaren gastua	0,5	1,4	-0,5	-0,6	0,2	-0,6	-0,3	0,0
Kapital-eraketa gordina	-9,8	-6,5	-3,8	-2,3	-5,6	-1,5	-0,3	0,0
Barne-eskariaren ekarpena	-2,6	-0,5	-0,4	0,1	-0,9	0,4	0,4	0,8
Kanpoko saldoaren ekarpena	1,8	0,9	0,9	0,6	1,1	0,7	0,8	0,7
Lehen sektorea	-26,6	-4,2	-9,8	-8,8	-12,4	1,9	4,7	6,4
Industria	-2,3	0,9	1,8	1,8	0,5	1,9	1,9	2,1
Eraikuntza	-5,4	-5,5	-4,7	-3,1	-4,7	-2,8	-2,6	-2,2
Zerbitzuak	0,5	0,9	0,7	0,7	0,7	1,1	1,2	1,4
Balio erantsi gordina	-0,9	0,3	0,4	0,6	0,1	0,9	1,1	1,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,1	2,2	1,0	1,2	0,1	1,5	1,6	1,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza zuzendaritza



> Informazio gehiago

Europar Batasuna:

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/european_economy/2010/pdf/ee-2010-7_en.pdf

Gipuzkoa:

<http://www.ogasuna.info/category/informes-de-empresas/lang-pref/eu/>